



TC.4005-E

Aurkezpen-erregistroa

Sarrera-erregistroa

**ESKABIDEA: KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEA**

LANGILE AUTONOMOEN ARAUBIDE BEREZIA

HITZARMEN BEREZIA

ESKATU DEN KOTIZAZIO-OINARRIAREN  
ALDAKETAREN ONDORE-DATA:

**1. ESKATZAILEAREN DATUAK**

LEHEN DEITURA  BIGARREN DEITURA  IZENA

1.1. IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA  NAN:  ATZERRITAR TXARTELA:  PASAPORTEA:

1.2. IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.  GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA

EGOITZA BIDE MOTA  HERRI-BIDEAREN IZENA  BLOKEA  ZK.  BIS  ESKAIL.  SOL.  ATEA  POSTA KOD.

UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA  PROBINTZIA  TELEFONOA

**2. KOTIZAZIO-OINARRI BERRIA**

**2.1. LANGILE AUTONOMOIA** (Jarri "X" behar den tokian, edo zenbatekoa adierazi)

2.1.1. ESKAERAAURKEZPENAREN DATAREN ONDORENGO URTEKO URTARRILAK 1EAN 50 URTE BETEAK EZ DITUEN LANGILEA

GUTXIENEO OINARRIA  GUTXIENEOAREN ETA GEHIENEOAREN ARTEKO OINARRIA  GEHIENEO OINARRIA

2.1.2. ESKAERAAURKEZPENAREN DATAREN ONDORENGO URTEKO URTARRILAK 1EAN 50 URTE BETEAK DITUEN LANGILEA.

GUTXIENEO OINARRIA  50 URTETIK GORAKO LANGILEENTZAKO GUTXIENEOAREN  
ETA GEHIENEOAREN ARTEKO OINARRIA  50 URTETIK GORAKO LANGILEENTZAKO  
GEHIENEO OINARRIA

**2.2. HITZARMEN BEREZIA**

2.2.1. TAS/2865/2003 AGINDUARI LOTURIK DAGOEN KOTIZAZIO-OINARRIA

GUTXIENEOA  KOTIZATU DEN AZKEN URTEKO BATEZ BESTEKOA  GEHIENEOA  TARTEKOA: (Adierazi hautatu den kotizazio-oinarriaren zenbatekoa)

2.2.2. 1991-7-18ko AGINDUARI DAGOKION KOTIZAZIO-OINARRIA

GUTXIENEO OINARRIA IGOTZEN DEN PORTZENTAJEAN  AURREKO OINARRIAREN ETA GUTXIENEO OINARRIAREN  
IGOERA APLIKATZEAREN EMAITZAKOAREN ARTEKO OINARRIA

GOBERNUEN ARTEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIOAK EDO ENPLEGATUAK (Gehienez bi digitu lauki egokietan)

KOTIZAZIO-TALDEKO GUTXIENEOA  KOTIZAZIO-TALDEKO GEHIENEOA

**3. KOTIZAZIO-OINARRIA MODU AUTOMATIKOAN IGOTZEA**

3.1. LANGILE AUTONOMOIA

KOTIZAZIO-OINARRIA BETI AHALIK ETA GEHIENEO KOTIZAZIO-OINARRIA IZATEKO AUKERA (Araubideko gehiengo oinarrietakoren bat duten langileen kasuan soilik)  KOTIZAZIO-OINARRIA ARAUBIDEKO GEHIENEO OINARRIA IGOTZEN DEN HEINEAN IGOTZEKO AUKERA (Langile guztientzat)

3.2. TAS/2865/2003 AGINDUARI DAGOKION HITZARMEN BEREZIA: ARAUBIDEKO GEHIENEO KOTIZAZIO-OINARRIA IGOTZEN DEN PORTZENTAJEAN GUTXIENEO OINARRIAREN ARABERAKO AUKERARI DAGOKIONEAN IZAN EZIK)

3.3. 1991-7-18ko AGINDUARI DAGOKION HITZARMEN BEREZIA: GUTXIENEO OINARRIA IGOTZEN DEN PORTZENTAJEAN

**4. KOTIZAZIO-OINARRIA MODU AUTOMATIKOAN IGOTZEARI UKO EGITEA**

**5. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK**

BEZEROAREN IBAN KODEA

ZORDUNKETA DAGOKION KONTUAREN TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO-AGIRIA

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA NAN:  I.F.K.:  ATZERRITAR TXARTELA:  PASPRT.:

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.

LANGILEAREN SINADURA	ESKABIDEAREN ONGITZEA ETA HOBEKUNTZA JAKINARAZTEKO DILIGENTZIA	EBAZPENA JAKINARAZTEKO DILIGENTZIA
	Data: NAN:	Data: NAN:
	SINADURA:	SINADURA:

EGIN BEHAR DEN ONGITZEA EDO/ETA HOBEKUNTZA

ESKABIDEA EGIN ZAION ORGANOA: G.S.D.O.ren PROBINTZI ZUZENDARITZA EDO ADMINISTRAZIOA:

AVISO: Existe a su disposición este impreso redactado en lengua castellana.

TC. 4005-E (04-2018)

## INFORMAZIO-OHARRA

DATUEN BABESA.- Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko (E.A.O., 1999ko abenduaren 14koa) 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusi diren ondoretarako, inprimaki honetan jartzen dituzun datuak Afiliazio Fitxategi Nagusian sartuko direla jakinarazten dizugu. Fitxategi hori 1994ko uztailaren 27ko aginduaren bidez araupetu zen. Aipatu datuei dagokienez, datuok atzitu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubidea erabili ahal izango duzu, 15/1999 Lege Organikoan adierazten denaren arabera.

### ESKABIDEA AURKEZTEKO EPEAK ETA ONDOREAK

#### NORBERAREN KONTURAKO LANGILEEN EDO AUTONOMOEN ARAUBIDE BEREZIA

##### KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEKO ESKABIDEA EGIN AURRETIK GEHIENENKO OINARRIAREN ARABERA KOTIZATZEN EZ DUTEN LANGILEAK

Kotizazio-oinarria aldatzeko eskabideak maiatzaren bata baino lehen aurkeztu beharko dira, hurrengo uztailaren bateko ondoreekin, eta azaroaren bata baino lehen, hurrengo urteko urtarrilaren bateko ondoreekin.

##### KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEKO ESKABIDEA EGIN AURRETIK ORDURA ARTE BAIMENDUTAKO GEHIENENKO OINARRIAREN ARABERA KOTIZATZEN DUTEN LANGILEAK

Norberaren konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Bereziko langileek ordura arte izan duten kotizazio-oinarriaren eta aplikatu dakiekeen gehieneko mugaren arteko edozein kotizazio-oinarri aukeratu ahal izango dute, urtero Gizarte Segurantzaren, Langabezia, Soldadak bermatzeko Fondoa eta Lanbide Heziketarako kotizazio-arauak ematen dituen Agindua argitaratzen den hilaren hurrengo hileko azken egunera arte, baldin eta urtero ezartzen diren kotizazio-oinarri berriek ondoreak izaten dituzten datan ordura arte baimendutako gehieneko oinarriak aukeratu badituzte. Kotizazio-oinarri berriak eskabidea egiten den urteko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondoreak.

### HITZARMEN BEREZIAK

**1991-7-18ko Aginduari heldu dioten langileak:** gutxieneko kotizazio-oinarriak aldarazten dituen xedapen egokia indarrean jartzen den hilaren osteko hilaren azken egunean amaituko den epearen barruan eskatu beharko du interesatuak kotizazio-oinarri berriari dagokion hautapena. Kotizazio-oinarri berri horrek arestian aipatu den aldarazpenaren indarralditik aurrera izango ditu ondoreak.

**TAS/2865/2003 Aginduari heldu dioten langileak:** Kotizazio-oinarria aldatzeko eskabideak urte bakoitzeko urriaren bata baino lehen aurkeztu beharko dira. Aukeratzen den kotizazio-oinarriak eskabidea egiten den dataren hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondoreak.

### INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

#### OROKORRAK

- Agiri hau makinaz edo letra larriz bete behar da, zuzenketarik eta zirriborrorik gabe.
- Atzealde grisa duten eremuak Gizarte Segurantzaren Administrazioak betetzekoak dira.

### ZEHATZAK

#### 1. ESKATZAILEAREN DATUAK

- 1.1. Identifikazio-agiriaren mota.** - Jar ezazu "X" behar den tokian: Nortasun Agiri Nazionala -NAN-, Atzerritar Txartela edo Pasaportea.
- 1.2. Identifikazio-agiriaren zenbakia.** - Identifikazio-agiriaren zenbakia jarri beharko da; Atzerritar Txartela denean, Atzerritarren Identifikazio-Zenbakia (A.I.Z.) jarriko da.

#### 3. KOTIZAZIO-OINARRIA MODU AUTOMATIKOAN IGOTZEA

**3.1. Araubide Bereziko gehieneko oinarria edo 48 urtetik gorako langileentzako gehieneko oinarria duen langilea.** - Araubide Berezi horietako gehieneko oinarrietakoren baten arabera kotizatzen ari diren langileek, alta egoerari eusten dioten artean, beren kotizazio-oinarria gehieneko oinarri horiek hazten diren heinean berean igotzeko eskatu ahal izango dute.

**Araubide Bereziko gehieneko oinarrietakoren bat ez duen langilea.** - Araubide Berezi honen gehieneko oinarrietakoren baten arabera kotizatzen ari ez diren langileek, alta egoerari eusten dioten artean, beren kotizazio-oinarria Araubide Berezi hauetan gehieneko kotizazio-oinarriak hazten diren heinean berean modu automatikoan igotzeko eskatu ahal izango dute. Aukeratzen den kotizazio-oinarria inoiz ere ezin daiteke langilea uki dezakeen gehieneko kotizazio-muga baino handiagoa izan.

Urte bakoitzeko azaroaren bata baino lehen egikaritzen diren aukeretako edozeinek eskabidea egiten den dataren osteko urteko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondoreak. Aukera honi epealdi berean uko egin ahal izango zaio, eta eskabidea aurkeztzen den urteko abenduaren 31etik aurrera izango ditu ondoreak.

**3.2. TAS/2865/2003 Agindua manuzko duten hitzarmen bereziak igotzeko kasuetarako soilik.** - Batez besteko oinarria Norberaren konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Bereziko gutxieneko oinarria baino handiagoa duten hitzarmenen kasuan baino ezin izango da igoera hori eskatu.

Aukera hau urte bakoitzeko urriaren bata baino lehen egikaritzeak eskabidea egiten den dataren osteko urteko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondoreak. Aukera honi epealdi berean uko egin ahal izango zaio, eta eskabidea aurkeztzen den urteko abenduaren 31etik aurrera izango ditu ondoreak.

#### 5. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK

Kuoten ordainketa helbideratuz gero, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak zorduntzeko agindua bidaliko du zure bankura edo kuxara kotizazioak borondatezko epealdian ordain ditzan. Helbideratze honek kotizazioak borondatezko epealdian ordaintzeko eta arauzko tasen edo oinarrien aldaketen ondoriozko erregularizazioak ordaintzeko bakarrik balio du, inolaz ere ez atzerakinak ordaintzeko.

Zure bankuak edo kuxak zeuk adierazitako kontuan zordunduko dizu zenbatekoa; horretarako, hilaren azken egunean nahikoa diru eduki behar duzu kontu horretan.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak esango dizu zein hiletan zordunduko zaizun kontuan lehenengoz eta zuk aurreko hileko kuotak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emango dizun kotizazio-buletinaren bidez ordaindu beharko dituzu.



### GORDEKINA: KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEKO ESKABIDEARENA (TC.4005-E)

Agiri honetan adierazten den datan, ondoan azaltzen diren datu hauek sartu dira Gizarte Segurantzaren Administrazio honen erregistroan:

DEITURAK ETA IZENA

LANGILEAREN GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.

ARAUBIDE EDO HITZARMEN BEREZIA

Sarrera-erregistroa

TC-4005-E (Gordekina)  
(04-2016)

Kotizazio-oinarria aldatzeko eskabidea tramitatzeko eskumena duen Gizarte Segurantzaren Administrazioa agiri honetan adierazten dena da.

**EBAZPEN-EPEA:** Eskabide honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabide hori Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritzaren edo bere izapidetzerako eskudun den Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egin ahal izango da, baldin eta okerrak ongitzeko eta agiriak eta ebazpiderako beste elementu batzuk aurkezteko eskatu behar bada, eta bai Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan azaltzen diren gainerako kasuetan ere. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea atzera bota dela ulertuko da. 39/2015 Legearen 21.4. artikuluan ezarririk dagoenaren xedeetarako jakinarazten dena.



### ONGITZEA EDO/ETA HOBEEKUNTZA: KOTIZAZIO-OINARRIA ALDATZEKO ESKABIDEARENA (TC.4005-E)

Kotizazio-oinarria aldatzeko eskabideak, zeinaren datuak jarraian agertzen diren, ez ditu betetzen Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66 artikulua ezarritako beharkizunak; horrenbestez, ezin daiteke berariazko ebazpenik eman eskabidearen aurkezpen-egintzan bertan.

DEITURAK ETA IZENA

LANGILEAREN GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.

ARAUBIDE EDO HITZARMEN BEREZIA

39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarririk dagoenarekin bat etorritik, eskatzaileak HAMAR EGUNeko epean ongitu beharko du adierazi den okerra, edo/eta aipatu diren agiriak aurkeztu.

Irteera-erregistroa

TC-4005-E (Ongitzea)  
(04-2016)

Kotizazio-oinarria aldatzeko eskabidea tramitatzeko eskumena duen Gizarte Segurantzaren Administrazioa agiri honetan adierazten dena da.

Baldin okerra ongitzen ez badu edo eskatu zaizkion agiriak aurkezten ez baditu, bere eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dugu, eta horren ondorioz, ebazpen egokia emango dugu.

**EBAZPEN-EPEA:** Eskabide honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabide hori Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritzaren edo bere izapidetzerako eskudun den Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egin ahal izango da, baldin eta okerrak ongitzeko eta agiriak eta ebazpiderako beste elementu batzuk aurkezteko eskatu behar bada, eta bai Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan azaltzen diren gainerako kasuetan ere. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea atzera bota dela ulertuko da. 39/2015 Legearen 21.4. artikuluan ezarririk dagoenaren xedeetarako jakinarazten dena.